

Garbiketa industrialean trebatzeko ikastaroa

- Irailaren 28an hasiko da eta hilabeteko iraupena izango du; 100 ordu orotara.
- Saio teoriko-praktikoak egingo dira Lehiberri Zentroan, eta Enplegu Sailak jarraipen pertsonalizatua egingo die parte hartzaileei, lan aukerak sustatzeko.

Gainazalen garbiketari trebatzeko ikastaroa izango da, iraila eta urriaren zehar, Lehiberri Zentroan. Tolosaldea Garatzeneko Enplegu Sailak antolatutako saioa da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

45 urteko pertsonen bideratutako ikastaroa da, helburu duena gaitzea enpresen, komertzien, hotelen eta apartamentu turistikoaren garbiketari. Osasun krisi egoeran izanik, gainera, arreta berezia jarriko zaie COVID-19a saihesteko prozedura eta protokolo zehatzei.

Sei modulotan banatuko da ikastaroa. **Lehen moduloan**, eraikin eta lokaletako zoru, horma eta sabaien garbiketa, tratamendua eta mantenua jorratuko dituzte; **bigarrenak** barruko altzarien garbiketa izango du hizpide; **hirugarrena** eraikinetako kristalen garbiketaren ingurukoa izango da; **laugarrenak** makinak erabiliz, garbitzeko teknika eta prozedurak emango ditu ezagutzera; **bosgarrena** turismo establezimenduen garbiketa eta egokitzean zentratuko da; eta, **azken moduloan**, lana aurkitzeko erremintak erabiltzen erakutsiko da.

Metodologia teoriko-praktikoa erabiliko da modulo guztietarako; hau da, edukien azalpenak eman eta ariketak egin ostean, lan horietako bakoitzarekin saio praktikoa egingo da.

Ikastaro osoan zehar, Tolosaldea Garatzeneko Enplegu Sailak jarraipen pertsonalizatua egingo die parte hartzaile guztiei, lan aukerak sustatu asmoz. Batik bat, arreta jarriko zaie prestakuntza maila baxuko eta lan merkatuari begira ahultasun egoeran dauden horiei.

Irailaren 28an hasiko da

Eskolak asteleheneetik ostiralera izango dira, 09:30etik 14:30erako ordutegian, Lehiberri Zentroan, Apata erreka industrialdean. Lehen eguna irailaren 28a izango da, astelehena, eta urriaren 26ra arte luzatuko da.

Izena emateko, lan@tolosaldea.eus helbidera idatzi edo **943 65 45 01** telefonora deitu beharko da, **irailaren 24a** baino lehen.

Leire Otaegi

Enplegu Zentroa

943 65 45 01 | 617 85 46 84

lan@tolosaldea.eus

[Facebook](#)



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA